

Iparla

Harresi gorria

Iparlako harresia elurturik, negu-neguko bisaiarekin.



Jacques Plot


Euskal Herriko mendi ezagutuenatik bat da Iparla. Haatik, mendizale gehienek Bidarraitik edo Izpegiko lepotik abiatuta zapatzen dute 1.044 metroko gailur eder hau. Hemen proposatzen dizuegun itzuliak, aldiz, Baigorriko Bastida auzunea dauka abiagune eta helmuga. Txango honekin, Iparlako harresia aldepetik ikusten da, haren gainetik ibiltzen da eta baita aurretik eta ostetik ere.

BAIGORRIKO Bastida auzunera heltzeko, hobe da mapari begiratzea, nahiz eta, Arrosarako norabidean, Eiheralde auzotegia igaro eta berehala, ezkererantz abiatzen den lehen bideak harat garamatzen. Mapak lagunduko gaitu, ordea, Bordazar baserria aurkitzen, gure autoak hemen utzita (laboraria ez trabatzeko gisan, haatik), oinez ibiltzeari ekinen baitiogu, lurrezko pista zabal bat hartuta. Ordu laurden batera, 400 metrotan, bide sarda batekin topo egitean, eskuin hartuko dugu eta berehalaxe Abraku errekarari aldegainetik jarraituko diogu.

Zubi polit batek beste alderat pasaraziko gaitu eta hemendik aurrera gorantz joanen gara poliki-poliki. Horrela, Galarzako leporaino (604 m.) iritsi baino 30 bat metro lehen ezkerretatik gorantz joaten den xenda bat hartuko dugu, hesi batez inguratutako bordalte bat eskuinean utzita. Laster heltuko gara Idoko leporaino, eta han, topatuko dugun arditegiaren eskuineko aldean abiatzen den xenda hartuko dugu, Iparlako harresiaren aldapatik ibilita, harrarte batera iritsi arte.

Harrartean, erabat ekialderantz eta oso patar den pasabide baten gora joanen gara. Kontuz ibili behar da, batik bat lurra bustia baldin bada. Kostata baina, mendi hegira iritsiko gara, Iparlako lepoan (950 m.) eta hemen topo egingo dugu GR 10 xenda seinalatuarekin. Hegiz hegi eta mugaren gainetik ibilita, Iparla gailurrera (1.044 m.) lagunduko gaitu xenda honek. Gozamen handi bat eskainiko digu hegitik ibiltze honek begiak alde guztietara edertasunez haziko baitira.


Atlante Sokarros



Iparlako itzulia Baigorritik

Erreferentziak

00:00	Bordazar baserria
01:30	Galarze lepoa
02:30	Iparlako lepoa
03:00	Iparla
03:45	Harrietako lepoa
04:30	Bordazar baserria



Luzera 12 km. **Iraupena** 4:30 ordu **Desnibela** 900 m ↑

Jakingarriak

Oxobia baserria: Bordazar baserrira heldu baino justu lehen Oxobia deitutako etxaldea dugu. Hemen bizi da Erramun Martikorena artzain-kantari ezaguna, eta agur bat egin diezaigun merezi du. Tartetik erraiteko, gogorazten dizuegu disko berri bat plaza-ratu duela orain dela gutxi.

Idokolepoa: Euskarazko gune izenen erranahia ez da beti ulergarria, ahoskerak egindako aldaketak direla eta. Ondo begiratzeak laguntzen du, haatik, ulermenaz jabetzea, hala nola Idokolepoa tokia- ren kasuan. Lepo honetan, ihia sortzen da, eta horrek erran nahi du ur asko badela lurpean eta gunea lohitsu dela. Lokatz guneei Idoiak deitzen zaie; beraz, hara zergatik Ido(i)kolepoa.

Bidarraitik edo Izpegiko lepotik igotzen dira gehienak Iparlara. Itzuli honek Baigorriko Bastida auzunea du abiagune

Iparlako harresiaren bazter-bazterretik, saiak goialdean bidelagun ditugularik, Gapeluko lepora (945 m.) jaitsiko gara eta hemen apurtxo bat igo beharko dugu Tutulia gainera (983 m.) heltzeko, Berrero ere beherantz jota, hegiz hegi beti, Harrietako leporaino (808 m.) iritsiko gara. Hemen, zuhaitz artean, GR 10a utzita, ezkerretik beherantz abiatzen den

xendari ez zaio huts egin behar. Sarosarreko arditegira heltzean, iparralderat abiatzen den ezkerreko xenda hartuko dugu eta honek Larrarteko leporat (679 m.) eremanen gaitu. Lurrezko pistaren beheara, gorantz joateko hartu genuen bidearekin topo egingo dugu laster eta eskuinerat hartuta ordu laurden baten buru berriro helduko gara Bordazar etxaldera.